

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARRASATEKO UDALAREN 2009-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Arrasateko Udalaren 2009ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen Kontu Orokorren fiskalizazio txostenak legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezketasunaren atalean, Epaitegiak udalaren eta erakunde autonomoen jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Honela, bada, langileria dagokionez, HKEEk adierazi du erretiro partzialeko egoeran zeuden Udalaren 4 langileri eta Aukea Kirolaren Erakunde Autonomoko langile bati ordaindutako aparteko lizentzia aitortu zitzaizela harik eta kontratua iraungi zen arte eta zegokien lanaldiaren egiazko zerbitzua betetzetik saihestu zituztela; jokamolde horrek, ordea, ez zuen beharrezko legezko babesaren lizentziarik, ez eta Administrazio Publikoen zerbitzura diharduen langileria ezargarria zaion araubide juridikoan inongo euskarririk ere.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Udalak urratu egin dituela administrazioko kontratazioa arautzen duten arauak. Hona hemen adierazgarrienak: 135 mila euroko gastuak esleipen prozedurak baliatu gabe gauzatu dira; egoitza bat zaharberritzeko kontratuan egin diren aldaketek kontratuaren hasierako prezioa % 33 garestitzea ekarri dute eta horrek desitxuratu egiten du bai kontratuaren xedea, bai bolumen ekonomikoa ere; eta batera kontratatu dira proiektuen elaborazioa eta obren egikaritzea, dagozkion apartekotasun suposamenduetara egokitu gabe.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari

egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Diruzaintza Geldikina 1,4 mila euroan gehitu duena.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu eta kontabilitate, sarrera fiskal, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Amaitzeko, finantza egoerari dagokionez jakinarazi da Udalak inbertsio-ahalegin handia egin duela eta hori finantzatu dela bai kapitalezko diru-sarrerekin (2007ko ekitaldian batik bat hirigintzako aprobetxamenduetatik eta ondasunak besterentzetik eskuratutakoa), bai aurrezki garbiarekin (nabarmen murriztu dena udalerrian eraikuntza jarduerari lotutako sarrerak behera egin dutelako eta atzeraldi ekonomikoaren aurrean itundutako zergek eragindako sarrerak murriztu direlako) eta bai GFAk 2009ko UFFFaren likidazio negatiboaren ordainketa geroratuta emandako finantzaketarekin.